



CONXEMAR 2022

2022ko URRIAREN 4-6

Informazio gehiago:

Jon Zabaleta

943 00 02 99

jzabaleta@camaragipuzkoa.com

Tokia IFEVI azoka gunea, Vigo

Maiztasuna: Urtero

Nori zuzenduta: Hainbat banaketa kanaletako profesionalak (inportatzaileak/esportatzaileak, banatzaileak, prozesatzaileak, banaketa handia eta HORE.CA. kanaleko espezialistak)

Izena emateko epea: 2022ko martxoaren 15

Azokaren webgunea: www.conxemar.com

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak, Elikaduraren Euskal Industria kanpoan sustatzen laguntzeko jardueren barruan, **CONXEMAR 2022** azokan Euskadiko enpresen baterako parte hartzea antolatu du, azokaren hogeitabigarren edizioan. Azoka **Vigon** egingo da, **2022ko urriaren 4tik 6ra**.



AZOKAREN IZAERA



Erakusketa eremua: 31.000 m²

2021 erakusketariak: 486 erakusketari 32 herrialdekoak

2021eko bisitariak: 22.000 profesional 95 herrialdekoak

Azokaren webgunea: www.conxemar.com

ERAKUSKETARIAREN PERFILA

- Arraina eta edonolako produktu izoztuak merkatu-ratzen dituzten sektoreei zuzenduta, produktu izoztuen gaineko estatuko azokarik garrantzitsuentzat eta munduko bigarrentzat jotzen da.
- Publiko profesionalera bideratuta eskusiboki, banaketa kanaletan liderrak diren erosle kopuru handi bat erakartzen du.
- 2021ean 486 erakusle egon ziren, 31.000 metro koadroko erakusketa esparru batean eta 95 herrialde baino gehigotako 22.000 bisitari bertaratu ziren.

BISITARIAREN PERFILA

- Hainbat banaketa kanaletako profesionalak (inportatzaileak/esportatzaileak, banatzaileak, prozesatzaileak, banaketa handia eta HORE.CA. kanaleko espezialistak)
- Handizkakoak, inportatzaileak, esportatzaileak, eraldatzaileak, fabrikatzaileak, banatzaileak, hozkailuak, makineria, industria laguntzailea (hotza, enbalajeak, plastikoak, etab.), akuikultura.

Edizio zenbakia: 23. edizioa

Azokaren ordutegia:

Urriak 4 asteartea eta 5 asteazkena 10:00 - 18:00

Urriak 6 osteguna 10:00 a 16:00

Erakusketa eremua: 38.000 m²

2021eko erakusketariak: 486 erakusketari

2021eko bisitak: 22.000 bisita

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK



CONXEMAR 2022 azokan parte har dezakete egoitza soziala **Euskal Autonomia Erkidegoan duten enpresa ekoizleek bakarrik**, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Elikadura Industrien Erregistroan izena emanda badaude.

Azokaren aurretik

- Enpresaren ordezkari baten aldetik joateko konpromisoa eta kuota ordaintzea; beraz, **EAEko pabiloian sartuko dela jakinarazten denetik ezingo da ekitaldian baja eman**. Halabeharrezko kasuetan baino ez, Eusko Jaurlaritzak eskubidea erreserbatzen du enpresak aurkeztutako arrazoiak baloratzeko eta, behar bada, ordaindutako zenbatekoaren portzentaje bat itzultzeko.
- Muntatzen den egunean enpresak derrigor egon behar dira, esaten zaien orduan merkantzia jasotzeko, eta beraien erakustokien dekorazioa amaitzeko, jardunaldia hasi baino lehenago.



Azokan zehar

- **Euskal Autonomia Erkidegoko produktuak baino ezingo dira erakutsi**. Ezin izango da, inola ere, beste autonomia erkidego batzuetako produkturik aipatu, ezta aurkeztu ere.
- Standetan azokako egun guztietan eta zabalik dagoen ordu guztietan eman behar da arreta.

Enpresa batek azokaren ordutegi ofizialean standean arreta emateari uzten badio, salbuespeneko arrazoi justifikaturik gabe, azokaren hurrengo ediziorako lehentasuneko eskubidea galduko du (izena ematearen hurrenkera, etab.). Haren eskariari bakarrik erantzungo zaio baldin eta leku liberik badago izena emateko eta ordaintzeko datetan, egindako gainerako eskari guztiei erantzun eta gero.

Halaber, enpresa batek edo batzuek standa hutsik uztearen ondorioz antolakuntzak zigorren bat jartzen badio Eusko Jaurlaritzari –parte hartze bateratuaren antolatzailea den heinean–, zigor hori berehala jasanaraziko zaio/zaie arau haustea egin du(t)en enpresari edo enpresei.

- Azoka amaitzerakoan produktu guztiak behar bezala jaso eta standeko elementuak entregatu, jaso ziren egoera berberetan.

Azokaren ondoren

- **Ebaluazio galdetegia** bete eta eskatzen zaien antolatzaileari entregatu.

PARTE HARTZEKO EREDUA ETA KOSTUA



Parte hartzeko eredua

Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspenen arabera, Euskadiko Basque Country erakustokiak 2021ekoaren antzeko espazioa beteko du.

Eusko Jaurlaritzaren standak gehieneko enpresa kopuru bat izango du. Interesa duten enpresa gehiago egonez gero, hautapena egin beharko da, izena emandako hurrenkerari zorrotz erreparaturaz. Izen ematea osatuta egongo da baldin eta dokumentu guztiak aurkezten badira -ordainagiria, zinpeko adierazpena eta izena emateko inprimakia beteta-.

Horrez gain, Eusko Jaurlaritzaren presentzia interesa duten enpresen kopuruaren menpe egongo da, baita azokaren antolakuntzak ezarritako segurtasun protokoloaren menpe ere.

Parte hartzeko aukera bakarra eskaintzen da:

- **Stand INDIBIDUALA**

Oharrak:

1. *Stand bikoitza edo hirukoitza esleitzeko irizpidea enpresa parte hartzaileen kopurua izango da.*
2. *Euskal Autonomia Erkidegoko lehen sektorearen produktua eraldatu eta merkaturatzen duten enpresen parte hartzea bultzatuko da.*
3. *Erakustokiaren neurri zehatzak azokak baieztatzen dituen unean zehaztuko dira.*

Parte hartzeko kostua

CONXEMAR 2022an, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saitetik Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza sektoreko produktua eraldatu eta merkaturatzen duten enpresen parte hartzea bultzatuko da.

Daukaten sailkapenaren arabera, enpresek dirulaguntza bat edo beste jasoko dute parte hartzeak dakarren kostua ordaintzeko. Enpresa bakoitzak bere tipologia egiaztatu beharko du. Horretarako, nahitaezkoa da, izena ematean, lehengaien jatorria egiaztatuko duen Zinpeko Adierazpen bat aurkeztea, sinadura zein zigiluarekin.

Euren produktuak jatorri izendapen, AGB edo kalitate egiaztatuko marka ofizial baten pean erregistratuta dauzkaten enpresek ez dute bete beharko Adierazpen horretako taula. Zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrerarako onespentak baimendu besterik ez dute egin beharko.

- **1. Motako Enpresa:** Batez ere Euskadiko lehengaiz hornitzen diren enpresak. Enpresak produktuaren jatorria egiaztatu beharko du.

1.873,89 € + % 21 BEZ = 2.267,41 €

- **2. Motako Enpresa:** Euskadin behar duten lehen sektoreko produkzioerik egon ez eta Euskaditik kanpoko lehengaiak erabiltzen dituzten enpresak.

3.123,15 € + % 21 BEZ = 3.779,01 €

- **3. Motako Enpresa:** Euskadin behar duten lehen sektoreko produkzioa egon arren Euskaditik kanpoko lehengaiak erabiltzen dituzten enpresak.

4.372,40 € + % 21 BEZ = 5.290,60 €

Izena emateko kuota **ordainketa bakarrean** egingo da.

EUSKO JAURLARITZAREKIN PARTE HARTZEA



Izena emateko epea: 2022ko martxoaren 15

Parte hartu nahi baduzu, **leku kopurua mugatua denez**, gomendatzen dugu lehenbailehen izena emateko formularioa betetzea eta eskatutako dokumentuak bidaltzea helbidera: jzabaleta@camaragipuzkoa.com

Enpresa parte hartzaileen hautaketa izena emateko dokumentu guztiak (formularioa, ordainagiria eta erantzukizunpeko adierazpena) jasotzen diren **hurrenkeraren arabera** egingo da, kontuan hartuta leku kopurua mugatua izango dela eta azokaren antolakuntzak ezartzen dituen segurtasun protokoloen arabera.

Eusko Jaurlaritzaren presentzia ere interesa duten enpresa kopuruaren arabera izango da, eta ezarritako gutxienekoa bete beharko da.

IZENA EMATEKO FORMULARIOA BETE



Formularioan eskatzen den informaziotik, datuak zehazki transkribatuko dira azokaren katalogo ofizialerako eta prestatzen diren gainerako elementu promozionaletarako.

IZENA EMATEKO KUOTAREN ORDAINAGIRIA

Ordainketa banku transferentzia bidez egingo da.

Kontu zenbakia: Laboral Kutxako **ES49 3035-0179-61-1791069900** HAZIren izenean.

Kontzeptua: **"Enpresaren izena + CONXEMAR 2022"**

ZINPEKO ADIERAZPENA



Derrigorrezkoa da enpresa eskatzaileek Zinpeko Adierazpen bat aurkeztea lehengaiaren jatorriari buruz, sinatuta eta zigiluarekin.

IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA: 2022ko martxoaren 15

HAZiiko Finantza Departamentuak izena ematearen kuotaren zenbateko totalaren faktura bidaliko dizue.

EUSKO JAURLARITZAREKIN PARTE HARTZEA



GARRANTZITUA:

Eskatutako dokumentuak bidaltzeak **EZ DU ESAN NAHI** enpresak azokan parte hartuko duenik. **Izena emateko epea amaitzen** denean (**2022ko martxoaren 15a**) **BAIEZTATUKO** da parte hartzea.

ENPRESAK FAKTURA JASO ETA GERO, HAU DA, STANDEAN SARTU DELAKO JAKINARAZPENA JASO ETA GERO, PARTE HARTZEARI UKO EGITEN BADIO, ORDAINDUTAKOAREN %100 GALDUKO DU.

Enpresek ordaindutako zenbatekoak itzultzeko kasu hauek baino ez dira kontuan hartzen:

- Enpresa erakusleek eskatutako gunea Azokaren Antolakuntzak Eusko Jaurlaritzari esleitutako gunea baino **handiagoa** bada, EZ hautatutako enpresek eskubidea izango dute izena emateko kuota itzultzeko.
- Eusko Jaurlaritzak halaberrez edo nahiko partaiderik ez dagoelako parte hartzea bertan behera uzten badu, enpresek eskubidea izango dute ordaindutakoaren %100 jasotzeko.



ESKAINITAKO ZERBITZUAK



Espazioa kontratatzea

Espazio batekin parte hartuko da, zeina interesa duten enpresen artean banatuko baita, azokaren antolakuntzak ezarritako osasun neurrien eta segurtasun protokoloen arabera.

Espazio promozional batekin parte hartuko da, eta hori enpresa ko-erakusle bakoitzerako pertsonalizatutako stand indibidualetan banatuko da.

Pabiloiaren dekorazioa

Standaren oinarrizko dekorazioa eta altzariak uniformeak izango dira Euskal Herriko erakustokiko erakusketari guztientzat, eta elementu hauek izango dituzte:

- Mahai 1 eta 4 aulki
- Mostradorea
- Enpresa erakusketa-riaren errotulua
- Hozkailuarekiko biltegia
- Konexio elektrikoa

Harraska erabilera komunitarioko eremu batean egongo da.

Merkantziaren garraioa

Eusko Jaurlaritzak merkantziaren bidalketa bateratu bat antolatuko du esleitutako garraiolaria ofizialak adierazten duen lekutik merkantzia standean bertan entregatu arte. Bere garaian, esleipena duen enpresa garraiolariaren datuak emango dira.

Garraioaren kontratazioa indibiduala izango da; ondorioz, garraiolaria zuzenean bidaliko dio enpresa erakusleari merkantzia bidaltzearen kostua, eta zerbitzua enpresaren kontu joango da.

Hotz kamerak eta beste etxetresna batzuk

Hotz kameren eta beste etxetresna elektrikoen alokairua erakuslearen kontu izango da. Halere, Saila enpresen esanetara jartzen da zerbitzu hori kontratatzea koordinaatzeko, eta hornitzaileak zerbitzuak zuzenean erakusleari fakturatuko dizkio.

Pabiloia mantentzea (garbiketa, elektrizitatea, ura, etab.)

Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen ditu garbiketako zerbitzu orokorrak, elektrizitatea, ura, etab., eta, oro har, pabiloia egoki mantentzeko lanak.

Hala ere, enpresa bakoitzaren arduraren izango da norbere standaren garbiketa aldetik baldintza egokietan mantentzea.

Stand bakoitzerako potentzia elektrikoko tope batzuk eta gehieneko kontsumo batzuk egongo dira, eta horren berri jakinaraziko zaie erakusketakideei parte hartzea prestatzeko tramiteak hasten direnean.

Oharra: oinarrizko altzariak, elementu elektrikoak edo behar elektrikoak aldatzen badira, kostuaren igoera edo aldaketa eragiten badu, dekoratzaileak zuzenean fakturatuko dio enpresa erakusleari, eta enpresa horren kontu izango da zenbatekoaren igoera.

Azokaren katalogo ofizialean sartzea

Eusko Jaurlaritzak azokara joaten diren enpresa erakusle guztiak azokaren antolakuntzak argitaratzen duen katalogo ofizialean agertzeko egin beharreko tramite guztiak egingo ditu; bertan ekitaldiko erakusle guztiak agertzen dira erregistratuta (izena emateko formularioan jasotako datuak agertuko dira).